

# ETB eta TVE

Urola ibai-aldean (Azpeitia, Azkoitia, Zestoa...) 64 erantzun jaso dodaz, eta emen dozuz erantzun-  
11 eta 12 urteko mutil-neskatoen artean itaun-erantzunak.  
tzun batzuk egin dodaz, Euskal Telebista buruz.

\* \* \*

## Lenengo itauna:

ZER IKUSTEN DOZU GEIAGO, EUSKAL TELEBISTA ALA ESPAÑA'koa?

27 Euskal Telebista geiago ikusten dot erderazkoa baiño.

31 Biak bardintsu ikusten dodaz.

4 Erdal telebisiñoa bakarrik ikusten dot.

(Bazter guztietara ez da oraindik eltzen Euskal Telebista).

## Bigarren itauna:

EUSKAL TELEBISTAN ZER JATZU GEIEN ATSEGIN?

(Gaiak maillaka ipiñi: lenengo, bigarren...)

Lenengo	TELEFILMAK .....	60	(Batez ere «Dallas» eta «Bedeinka nazazu, Jauna»)
Bigarren	MUSIKALAK .....	37	
Irugarren	KIROLEZ KIROL .....	30	
Laugarren	GAZTETANDIK .....	23	
Boskarren	MARRAZKI BIZIDUNAK .....	17	
Seigarren	DOKUMENTALAK .....	9	(Batez ere «Everest»)

## Irugarren itauna:

EUSKAL TELEBISTAN ZER JATZU GITXIEN ATSEGIN?

(Gaiak maillaka ipiñi...)

Lenengo	BERBETAN .....	17	(11-12 urtekoak dirala ez aztu)
Bigarren	MAHAI INGURUA .....	17	
Irugarren	TELEGUNKARIA (ALBISTEAK) .....	10	
Laugarren	MUSIKALAK .....	9	
Boskarren	MARRAZKI BIZIDUNAK .....	7	
Seigarren	ZOPA HAUNDI .....	6	

## Laugarren itauna:

ZENBAT ORDU EMOTEN DOZUZ EGUNERO TELEBISTAREN AURREAN?

### ASTAGUNETAN

3 edo 4 ordu	64'tik	8 gaztek
2 edo 3 ordu	»	16 »
1 edo 2 ordu	»	3 »
1 ordu	»	3 »
Gitxi ikusten dot	»	4 »

### OPOR EGUNETAN

Egun osoa	64'tik	1 gaztek
4 edo 5 ordu	»	23 »
3 edo 4 ordu	»	13 »
2 edo 3 ordu	»	18 »
1 edo 2 ordu	»	9 »

«Ez dot telebistarik ikusten» ez dau erantzuten inork ere.

### OARPEN BATZUK.

KIROLEZ KIROL geiago atsegin jake mutillai, neskai baiño.

MUSIKALA biai bardintsu.

TELEFILMAK zerbait geiago neskai, mutillai baiño.

MARRAZKI BIZIDUNAK, neskai geiago mutillai baiño, batzuei ezer ez.

«EVEREST» DOKUMENTALA mutillai geiago neskai baiño.

Neskak ordu geiago emoten dabez telebistaren aurrean, mutillak baiño, baiña alde andi barik.

«Barriak» jakitea, «Telegunkaria» ez da interesgarri 11-12 urteko gaztetxoentzat.

GOIKOETXEA'tar IÑAKI